

KRIKA MUSIKA

Jesus Mari Begofia

Mozartiar orkestra

Ipar Bohemiako Filarmoniko klasiko

Rodrigo maisuaren omenez, haren 100. urtebetetzean. **Zuzendaria:** Martin Doubravsky. **Gitarra jolea:** Lubomir Brabec. **Obrak:** Dvorak, Rodrigo, Mozart. **Tokia:** Arriaga Antzokian. **Eguna:** Urriak 25.

Txeikiako Trebice bainu-etxe inguruan sortutako orkestra ez da guk ikusi genuen erdi hori, horren biko bano, eta jole horien eza asmatu genuen lehenengo zatian Bilboko agerraldian. Nazionalismo estilokoak baitira dantzaz beteriko *Txeikiar Suitea* edo *Aranjuezeko Kontzertua*, eta baliabide gehiagoko behardunak. Egia da ganbarazko izaeraz jantzi genitzakeela ere Dvorak-en sei zatiak. Baina duen kalitate apalak ez zion orkestrari behar bezalako gaitasuna ateratzen utzi.

Lubomir Brabectxekiar gitarra joleak frogatzen du harizko tresna herriko horrek duen erakargarritasun nazioartekoa. Nahiz eta bere jarra tentsioduna izan, akatsik gabe jo zituen Aranjuez-ko kontzertuaren bakarreko pasarteak, gehienak gainera mastaren azken trastetan jotzekoak. Beharbada, berotasun apur gehiago eskatuko geniokeen, baina bertutezkoaren azalekoa zela erakutsi zigun, zalantzarik gabe.

Ipar Bohemiako orkestraren benetako poderioa Mozart-en lanetan sumatu genituen. *Così fan tutte*-ren Overturan eta, batez ere, *41. sinfonia*. Musikariak egokiak izatek aparte, multzo sendoa direla adierazi zuten, soinu garbiaren egileak eta adituak mozartiar musketan. Nabarmenezkoak dira harizko taldekoak edo egurrezko haienezkoak. Martin Doubravsky zuzendariaren agintea ez da dotorea izango, baina eraginkorra eta prestua denik inork ez du zalantzan jarriko.

KRIKA ANTZERKIA

Agus Perez



M. DIAZ DE RADA

Anarkista baten ezusteko heriotza antzezlan.

'Volare'

'Anarkista baten ezusteko heriotza'

Izenburua: Anarkista baten ezusteko heriotza.

Lekua: Getxo antzokia. **Eguna:** Urriak 25.

Egilea: Dario Fo. **Zuzendaria:** Pere Planella.

Aktoreak: Aitor Mazo, Jose Ramon Soroiz, Ramon Ibarra, Ane Gabarain, Asier Hormaza, Kide Diaz de Rada.

Berriz dago gure artean *Morte accidentale di un anarchico* lana. «Berriz» diotsuet, zeren Francoren osteko lehen urteetan hainbat taldek antzeztu baitzuten eszenatokietako harribitxi hau. Dena den, zortzi urte igaro dira azkena ikusi genuenetik —Barakaldo antzokian— eta beti da ona inkonformismoaren iturri sanotik edatea.

Oraingo honetan, gainera, euskarazko bertsioa estreinatu dute Tentazio konpainiaren inguruan elkarturiko hainbat antzezlek, Pere Planella zuzendari katalanaren gidaritzapean.

Sarreran banatzen duten La Repubblica egunkariaren itxurako faksimilean agertzen denez, Julia Marin arduratu da euskarazko bertsioaz, eta nabaria da egindako ahalegina zuzentasun eta naturaltasunaren arteko oreka konprometitua

lortzeko, bai arlo idatzian bai ahoskeran.

Aktore guztiek lan txukuna egiten dute eta agerikoa da denen arteko koordinazioa, baina haien artean bi suertatzen dira bereziki aipagarriak. Ohore tokian, duda barik, Jose Ramon Soroiz dago, bigarren mailako paper batekin oso pertsonaia interesgarria eratzen baitu, herri filosofian oinarrituta eta beti agintarien esanetara dagoena, badaezpada ere. Aitor Mazok, berriz, aukera ederra izan du bere gaitasun histrionikoa erakusteko, ero, epaile, militar eta ez dakit zer gehiagorena eginez.

Baina Mazoren estiloa bat dator azken finean Pere Planellaren planteamenduekin. Izan ere, zuzendariak komikotasunaren ildotik jo du argi eta garbi, berez fartsa politikoa den obrari komedia arinen kutsua emanez, adibidez *Volare* kanta famatu hura tartekatuz leiho tamalgarrira hurbiltzen diren baikoitzean. Niri behintzat ez zaizkit batere gustatzen horrelako moldaketa merkeak, baina berdina da, Foren zorrozatasuna eta komikotasun garratza edozein modutan ere nagusituko direlako.

KRIKA MUSIKA

Joseba Martin

Nola hobetzen diren gauzak, kamarada

Alboka eta Marta Sebestyen

Lekua: Bilboko Kafe Antzokia. **Eguna:** Urriak 26a. **Jende kopurua:** 300 lagun. **Iraupena:** Ordubete eta 50 minutu.

Bi hilabete pasatu dira Alboka eta Marta Sebestyen lehen aldiz —Bilbon orduan ere— elkartu zirenetik *Lorius* lanaren kantuak zuzenean emateko. Ordutik ona gauza asko aldatu dira; are gehiago, hobetu dira. Martaren presentziak arazo bat zen: zer egin zezakeen bere euskarazko partea —lauzpabost kantu— agortu ondoren? Erantzun egokia bideratu dute Albokakoek, ekitaldi honetan ikusi genuen bezala: kantu gehiago egiten ditu Martak —hungarieraz gehienak— eta batzuetan talde osoak hartzen du parte. Beste aldaketak ere gauzatu dira: adibidez, kantu batzuen sarrerak, non musikari batek edo besteak *intro*-aren ardua hartzen duen; horrela entzun genuen *Santulari* kantuan Alan Griffinen klarineteaz, *Lau mazurka*-n Joxan Goikoetxearen akordeoiaz edo *Altsasu*-n Juanjo Otxandorena bouzoukiaz.

Gonbidatu bereziek ere hartu zuten parte, bai hemengoek —Juan Mari Beltranek eta Iñigo Monrealek txalapartan— bai kanpoko-

ek —Eliseo Parra gaztelauak bikain egin zuen *Toberak*, euskaraz eta paperik gabe—.

Martaren xarma agortezina

Abuztuko kontzertuan urduri ikusi bagenituen ere, oraingoan aurpegi alaiak, txantxak eta zorion ugari erakutsi zituzten Albokako kideek.

Egitaraua oso adierazgarria izan zen: lehen atalean instrumentu hutsezkoak, ondoren Marta, Xabi San Sebastian kantari berria eta Eliseo ahozko piezetan murgiltzeko. Bigarren atalean sortu zen aurreko minutuetan aurreratutako jaia. Primeran egon ziren guztiak —Juan Arriolaren biolina, Garbiñe Sagastibeltzaren baxu zehatza eta indartsua, Luis Caminoren perkusio aberatsak, Xabi San Sebastianen gitarra akustikoa...—.

Ohi bezala, Marta Sebestyenen lana maitagarria izan zen: Hungariako magia kantatzeaz gain koreografia txikiak egin zituen, dilinko flauta xumea ekarri zuen, *a capella* kantatu zituen beste bizpahiru kantu, eta Irlandako musikariekin grabatutako aire ederra berreskuratu.


Emakume honen xarma eta irribarreak ez dira inoiz agortzen. Zalantzarik gabe, bide ona hartu du Albokak: nola hobetzen diren gauzak, kamarada.

ANDOAIN

MARKELIÑE ANTZERKI TALDEAK

AURKEZTEN DU

"KARTOIBIRAKA"



AZAROAK 4
ORDUA:
18:00etan
LA SALLE
ANTZOKIAN

Antolatzailea: ANDOAINGO UDALA. Urigain Kultura Etxea.
Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

BAKAIKUKO ETXEA



J A I Z U B I A
Urriaren 31tik azaroaren 4ra

12.000 pta. MANTENU OSOA (afari-bazkariak + ohea ta gosariak)
Zenbat Gararen LAGUNAK 10.500 pta.

ZENBAT GARA ELKARTEA San Vicente 2 48001 BILBO TEL: 94 423 75 91



TXOTXONGILOAK ASTIGARRAGAN

Txotxongillo taldeak
"ITSASMINEZ" lana eskainiko du

EGUNA: urriaren 28a, igandea

TOKIA: kultur etxea

ORDUA: 17:30

ANTOLATZAILEA:

Astigarragako Udala